



### TROIAKO PASABIDEA GAUZATZEKO EAJ-PNV'ren MOZIOA

Usurbilgo udal gobernuaren aldetik Troiako pasabidea dela eta ez dugu inolako informaziorik jaso Udalean. Beste edozein herritar bezala prentsa eta publizitatearen bitartez jakin izan ditugu alkatearen asmoak eta beste erakundeekin egindako elkarrizketak.

Usurbilgo EAJ-PNV udal taldeak uste du ez dela zuzen ari alkatea gauzatu ezinezko proiektu handiak bultzatuz, berak bai bait daki ez dela ez errealista eta ez zentzuzkoa 2,4 milio eurotako oinezkoen pasa bide bat gauzatzea. Gure ustez badaude soluzio egingarriak eta udal gobernuak bere alderdi interesak alde batera utzita berari dagokion erantzukizunari aurre egin behar dio eta beste erakundeekin jarrera konstruktiboan lan egin.

Bestalde, Usurbilgo EAJ-PNVko udal taldeak uste du ba dela garaia oinezkoen pasabide horri irtenbide bat emateko eta aurreko legegaldian Bildu Foru Aldundiko gobernuan egonik ezer egin ez bazen ere, legegaldi honetan pausoak emateko eskaera egin nahi diogu udalari.

Guzti honegatik, honako puntu hauek onartzea eskatzen diogu Usurbilgo Udalbatzari:

1. Usurbilgo udal gobernuari eskatzen dio, N-634 errepidea gurutzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura departamentuak planteaturiko pasabide semaforizatua gauzatu dadin, elkar lanari ekin diezaiola.
2. Proiektu honetan udal eskuduntzakoak diren gaiak beregain hartu ditzala.
3. Usurbilgo udal gobernuari eskatzen dio ETS-rekin trenbidea gurutzatzeko pasoaren soluzioa, finantzaketa eta epeak berretsi ditzala.

Usurbil, 2018 ko Martxoaren 5 ean.  
EAJ-PNV udal taldea.